Kodea:
2018AKN20003

Kodea:
2021AKN20011

Andoaingo Udala

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA

Baldintza Teknikoen Plegua **Pliego de Condiciones Técnicas**

Andoaingo Udalaren politika sektorialetan genero ikuspegia eraginkortasunez txertatzeko laguntza teknikoaren zerbitzua.

Asistencia técnica para la integración efectiva de la perspectiva de género en políticas sectoriales del Ayuntamiento de Andoain.

Kontratu mota Tipo de contrato	**Zerbitzuak** / Servicios	**Prozedura** Procedimiento	**Irekia** / Abierto	**Esp. Kodea** Código Exp.	**2021AKN20011**
Lizitazio elektronikoa Licitación electrónica	☒ **Bai** / Sí ☐ **Ez** / No	**Tramitazioa** Tramitación	☒ **Ohikoa** / Ordinaria ☐ **Premiazkoa** / Urgente		

Ezaugarri Teknikoak

1.- Gutxieneko ezaugarri teknikoak:
Kontratu honen **xedea** berdintasun-arloari laguntza teknikoa ematea da, udal-politiketan genero-ikuspegia txertatzeko prozesuan.

Horretarako, prozesu mailakatu eta artikulatu bat egituratuko da udal-arloekin lankidetzan, honako **helburu** hauekin:

- Udal-arloei aholkuak ematea Genero-ikuspegia txertatzeko Politika publikoetan.
- Gai espezifikoei buruzko prestakuntza.
- Tresna teknikoak sortzea prozesuaren garapenerako eta sistematizaziorako.
- Prozesuaren fruituak jasoko dituzten materialak sortzea
- Prozesuaren garapenaren urteko balorazioa.

Orain arte esparru horretan egindako lana hartu beharko da **abiapuntutzat**, eta, beraz, lortutako lorpenak eta landu beharreko alderdiak aztertu, sortutako baldintzak aprobetxatzeko eta etorkizuneko prozesua bultzatzeko helburuarekin.

2.- Proposamenaren kalitatea
Proposamena elementu hauetan oinarrituko da:

- Proposamen operatiboa eta errealista izan behar du, egungo baldintzetatik abiatuta. Garrantzitsua da prozesua ahalik eta gehien egokitzea eragin nahi duen instituzioaren errealitatera. Hala, kontuan hartu beharko dira dituen ezaugarri espezifikoak tokierakunde gisa, eta gaur egun berdintasun-politikek duten egoera, bai eta udal-jardueran genero-ikuspegia integratzeko abian dauden prozesuak ere.

Prescripciones Técnicas

1.- Características Técnicas mínimas
El presente contrato tiene por **objeto** el acompañamiento técnico al área de igualdad en el proceso de introducción de la perspectiva de género en las políticas municipales.
Para ello, se articulará un proceso escalonado y articulado en colaboración con las diferentes áreas municipales, con los siguientes **objetivos**:

- Asesoramiento a las áreas municipales en la introducción de la perspectiva de género en las políticas públicas.
- Formación sobre temáticas específicas.
- Creación de herramientas técnicas para el desarrollo y la sistematización del proceso.
- Creación de materiales que recojan los frutos del proceso.
- Valoración anual del desarrollo del proceso.

Será necesario tomar en cuenta como **punto de partida** el trabajo realizado hasta el momento en este ámbito y analizar por tanto, los logros obtenidos y los aspectos a trabajar, con el objetivo de aprovechar las condiciones generadas para impulsar el proceso futuro.

2. Calidad de la propuesta
La propuesta se basará en los siguientes elementos:

- Debe ser una propuesta operativa y realista, que parta de las condiciones actuales. Es importante que el proceso se adecúe lo máximo posible a la realidad de la insitución en la que se pretende incidir. Así, deberán tenerse en cuenta las carácterísticas específicas que presenta como entidad local y la situación en la que actualmente se encuentran las políticas de igualdad, así como los procesos en marcha de cara a integrar la perspectiva de género en

ESKU9fb63310-d66e-4062-87a5-a00331c60255

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

- Koherentea izan behar du. Proposamenak koherentzia gorde behar du abiapuntuko baldintzen, helburu orokorren, helburu operatiboen eta erabili beharreko bitartekoen artean; beraz, egindako jardueren etengabeko ebaluazioa eta helburu operatiboen birdefinizioa egin beharko dira.
- Metodologia parte-hartzailean oinarritu behar da. Etengabeko komunikazioa ezarriko da berdintasun-arloarekin eta lan egitea proposatzen duen sailekin; beraz, sail bakoitzarekin zein sail guztiekin lan egiteko baliabideek garrantzi berezia izango dute.

- Prestakuntza eta edukien lanketa uztartu behar ditu; hau da, oinarrizko ezagutzetatik abiatuta, Andoaingo Udalaren errealitatera egokitutako eduki propioak landu ahal izateko prozesu bat definitu beharko da.

- Komunikazioaren eta lan birtualaren gaur egungo eskakizunetarako egokia izan behar du, eta garrantzi berezia hartu behar du enpresa lizitatzaileak teleprestakuntzako eta telelaneko tresnak ezartzeko duen gaitasunak.

Proposamenak hainbat atal izango ditu, eta labur-labur jaso beharko dira:

1.- Analisi diagnostikoa

Jarraitu beharreko estrategia definitu aurretik, udal-funtzionamenduan genero-ikuspegia sartzeari dagokionez kontratua sinatu arte emandako urratsak aztertuko dira. Horrela, prozesuaren abiapuntua zein puntutatik abiatu den adierazten duen argazki bat egin nahi da, zer urrats eman diren eta urrats horiek, egindako ekintzek eta hobetu beharreko elementuek zer ondorio izan dituzten behatzeko.

2.- Mainstreaming estrategia garatzeko baldintzak.

Egindako azterketatik abiatuta, mainstreaming estrategia inplementatzeko behar diren oinarriak zehaztuko dira. Oinarri horiek eremu politikoa eta teknikoa hartu beharko dituzte kontuan, bai eta estrategia garatu ahal izateko behar diren egiturak eta pertsonak ere. Egitura horiek eratzeko edo finkatzeko prozesu egokiak abiaraziko dira.

la actividad municipal.

- Debe ser coherente. La propuesta debe guardar coherencia entre las condiciones de partida, los objetivos generales, los objetivos operativos y los medios a utilizar, por lo que será necesario una evaluación constante de las actividades realizadas y una redefinición de los objetivos operativos.
- Debe basarse en una metodología participativa. Se establecerá una comunicación continua con el área de igualdad y con los diferentes Departamentos en los que proponga trabajar, por lo que los medios para trabajar tanto con cada Departamento como con el conjunto de los mismos adquirirán especial importancia.
- Debe combinar formación y elaboración de contenidos, esto es, será necesario definir un proceso en el que, partiendo de conocimientos básicos, puedan elaborarse contenidos propios y adecuados a la realidad municipal del Ayuntamiento de Andoain.
- Debe ser adecuado a las exigencias actuales de comunicación y trabajo virtual, adquiriendo especial importancia la capacidad de la empresa licitadora de implementar herramientas de teleformación y teletrabajo.

La propuesta constará de varios apartados que deberán recoger de forma concisa:

1.- Análisis diagnóstico

Se realizará de forma previa a la definición de la estrategia a seguir, un análisis de los pasos dados hasta el momento de la firma del contrato en cuanto a la introducción de la perspectiva de género en el funcionamiento municipal. Se pretende así elaborar una fotografía que indique el punto desde el que parte la elaboración del proceso, mediante la cual observar qué pasos se han dado y qué efectos han tenido estos pasos, las acciones realizadas y los elementos a mejorar.

2.- Condiciones para desarrollar la estrategia de mainstreaming.

A partir del análisis realizado, se definirán las bases necesarias para implementar la estrategia de mainstreaming. Estas bases deberán tener en cuenta el ámbito político y técnico, así como las estructuras y personas necesarias para poder desarrollar la estrategia. Se pondrán en marcha los procesos adecuados para la constitución o consolidación de estas estructuras.

ESKU9fb63310-d66e-4062-87a5-a00331c60255

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

3.- Prozedura komunak.
Arlo honetan, erakundearen jarduera komunari eragiten dioten eta erakundearen baterako lana eskatzen duten edozein prozesuetaz ari gara.
Egungo prozesuak, horietako bakoitzerako helburuak, beharrezko aldaketak eta aldaketa horiek gauzatzeko metodologia zehaztuko dira. Prozedura berriak sistematizatuko dira.

4) Politika sektorialak.

Prozedura komunez gain, inplikatutako sail bakoitzarekin laguntza-lan bat egin beharko da, genero-ikuspegia modu espezifikoan inplementatzeko. Abiapuntuko baldintzetara egokitutako prozesu bat definitu beharko da, Sailaren jarduera osoan genero-ikuspegia txertatzea helburu izango duena, mailaka. Prozesuak helburu operatiboen eta politika sektorialen izaeraren arabera antolatu eta definitu beharko dira.

Puntu horietako bakoitzerako, honako hauek zehaztu beharko dira:

- Prozesuan zehar lan egiteko metodologiak: prestakuntza teorikoa eta emandako edukien aplikazio praktikoa konbinatu beharko dira. Gainera, metodologia parte-hartzaile baten erabilera bultzatu beharko da, eta metodologia horrek inplikatu beharko ditu Udal-jardueran aldaketak egin beharko dituzten pertsonak.
- Erabili beharreko tresnak: tresna informatikoak eta digitalak konbinatuko dira aholkularitza edo prestakuntza presentzial eta zuzenarekin. Tresna horiek arlo bakoitzaren beharretara egokituko dira.
- Fase bakoitzaren amaieran sortuko diren materialak. Udal sailek gerora erabil ditzaketen tresnak sortuko dira, eta egindako lana eta sortutako tresnak txosten batean jasoko dira. Txosten hori proposatutako fase bakoitza amaitzean egingo da.

Era berean, lortutako emaitzak ebaluatzeko mekanismoak eta metodologiak zehaztuko dira, bai prozesuari dagokionez, bai lortutako emaitzari dagokionez, fase bakoitza hastean definitutako helburuen arabera.

3.- Procedimientos comunes.
Nos referimos en este ámbito a los procesos que afecten a la actividad común de la institución y requieran de un trabajo conjunto de la misma.
Se definirán los procesos actuales, los objetivos para cada uno de ellos, los cambios necesarios y la metodología para llevar a cabo esos cambios. Se sistematizarán los nuevos procedimientos.

4.- Políticas sectoriales.
Además de los procedimientos comunes, será necesario realizar un trabajo con los Departamentos implicados, de cara a implementar la perspectiva de género de forma específica. Será necesario definir un proceso adecuado a las condiciones de partida que, de forma escalonada, tenga como objetivo la integración de la perspectiva de género en toda la actividad del Departamento. Los procesos deberán ser ordenados y definidos en función de objetivos operativos y de la naturaleza de las diferentes políticas sectoriales.

Para cada uno de estos puntos, se deberán explicitar:

- Las metodologías de trabajo a lo largo del proceso: Se deberá combinar la formación teórica con la aplicación práctica de los contenidos impartidos. Además, se deberá impulsar el uso de una metodología participativa que implique a las personas que deberán poner en práctica los cambios a realizar en la actividad municipal.
- Las herramientas a utilizar: se combinarán herramientas informáticas y digitales con asesoramiento o formación presencial y directa. Estas herramientas se adecuarán a las necesidades de las diferentes áreas.
- Los materiales que se generarán al final de cada fase. Se generarán herramientas que puedan ser utilizadas a posteriori por las áreas municipales y se recogerá el trabajo realizado y las herramientas generadas en un informe que se realizará al finalizar cada fase propuesta.

Así mismo, se explicitarán los mecanismos y metodologías de evaluación de los resultados obtenidos, tanto en cuanto al proceso, como en cuanto al resultado obtenido en función de los objetivos definidos al iniciar cada fase.

3.- Beharrezkoak diren lantaldea eta lan tresnak

3.- Equipo de trabajo y medios necesarios

ESKU9fb63310-d66e-4062-87a5-a00331c60255

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

1.- Zerbitzuaren koordinatzaile eta kudeatzaile jardungo duen pertsona izendatu eta identifikatu beharko du enpresa esleipendunak. Pertsona hori arduratuko da berdintasun-arduradunarekin koordinatzeaz, zerbitzuaren jarraipena egiteko, detekta daitezkeen arazoak konpontzeko eta baliabide egokiak sartzeko.
2.- Programa gauzatzeko ezinbesteko langileak honako hauek izango dira, gutxienez:
   - Zerbitzua koordinatzeaz eta egikaritzeaz arduratzen den pertsona bat, Gizarte Zientzien eta Politiken arloko titulazioa eta genero-mainstreamingeko berariazko prestakuntza dituena.
   - Prestakuntzaren eta ikasgela birtualaren arduradun bat, Moodle motako teleprestakuntzako plataformak kudeatzeko titulazioa duena.
3.- Enpresa lizitatzaileak teleprestakuntzako eta aholkularitza teknikoko plataforma birtual propioa izan beharko du.

1.- La empresa adjudicataria deberá nombrar e identificar a la persona que actuará como coordinadora y gestora del servicio. Esta persona será la encargada de coordinarse con la responsable de igualdad para realizar el seguimiento del servicio, resolver los problemas que se pueden detectar e introducir los medios pertinentes.
2.- El personal imprescindible para la ejecución del programa será de al menos:
   - Una persona responsable de la coordinación y ejecución del servicio, con titulación en el ámbito de las Ciencias Sociales y Políticas y formación específica en mainstreaming de género.
   - Una persona responsable de la formación y el aula virtual, con titulación en gestión de plataformas de teleformación tipo Moodle.
3.- La empresa licitadora deberá contar con su propia plataforma virtual de teleformación y asesoría técnica.

4.- Beste ezaugarri edo baldintza batzuk:
- Ziurtatu beharko da amaierako eta behin betiko material guztiak ele bitan sortzen direla (euskaraz eta gaztelaniaz).
- Enpresa lizitatzaileak etengabe informatuko du berdintasun-arloa proiektuaren egoerari eta egindako aurrerapenei buruz.
- Edukiak prozesu mailakatu baten definizioarekin erlazionatuko dira, pixkanaka genero-ikuspegia udal-jarduera osoan integratuko duena. Prozesuak koherentzia gorde beharko du helburuen, faseen eta erabili beharreko bitartekoen artean.

4.- Otras características o condiciones:
- Deberá asegurarse que todos los materiales finales y definitivos se generan en bilingüe (euskara y castellano).
- La empresa licitadora mantendrá informada de forma constante al área de igualdad sobre la situación del proyecto y los avances realizados.
- Se pondrán en relación los contenidos mendiante la definición de un proceso escalonado que progresivamente integre la perspectiva de género en toda la actividad municipal. El proceso deberá guardar coherencia entre objetivos, fases y medios a utilizar.

Eginbidea: Nik, idazkariak, egiten dudana aditzera emateko Baldintza Administratibo Berezien agiri hau **Tokiko Gobernu Batzarrak** onartu duela, Alkatetzak eskuordeturik, **2021/11/5ean** egindako bilkuran hartutako erabaki bidez.

Diligencia: Que la extiendo yo, el Secretario de la Corporación, para hacer constar que el presente Pliego da Cláusulas Administrativas Particulares ha sido aprobado mediante acuerdo de **la Junta de Gobierno Local**, por delegación de Alcaldía, de fecha **5/11/2021**.

Idazkaria / El Secretario

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU9fb63310-d66e-4062-87a5-a00331c60255**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910***